

*Jose Maritorea Larrosa*

*Bera, Nafarroa  
(1926-2010)*

Aurkibidea

**Biografia**



Beran sortu zen. Ama  
Lesakakoa zuen eta aita  
Berakoa.

# Zintak

## BRA-014

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-08-21
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

## BRA-015

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-08-21
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

# Pasarteak

## 1. Sortetxea

- **Erref:** BRA-014/001
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Bere sortetxeak izen bat baino gehiago du: Artalurta, Kokotzenborda. Karlos V.ak bere sortetxean lo egin zuen. Bere gurasoek erosi zuten ezkondu zirenean. Anaia etxean gelditu zen eta bera Ameriketara joan zen (“biak etxean ezin egon...”).

## 2. Etxerako gelditzen zenaren betebeharrak

- **Erref:** BRA-014/003
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:03:29. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Etxerako gelditzen zenak gurasoak asistitu behar zituen. Indarreko etxeok kanpora joaten zirenei ere dotea eman behar zieten; batzuetan 3000 pezetako dotea izaten zen. Gerra aitzinean zilarrezko duroak ezagutu ditu.

## 3. Hamabostean behin merkatua

- **Erref:** BRA-014/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

**Laburpena:**

Lehen, hamabostean behin merkatua egiten zen Lesakan. Etxeko nagusiek duro bat eramaten zuten; hiru pezetarekin berendatzen (askaltzen) zuten eta bi pezeta bueltan eramaten zituzten oraindik.

**4. Eskolara oinez**

- **Erref:** BRA-014/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:06:28. **Bukatu:** 00:07:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Eskolara baseritik oinez joaten ziren, ordu bateko bidea egin behar zuten. Oso eguraldi txarra egiten zuenean, batzuetan baserrian gelditzen ziren, baina, bestetan, elur ederrarekin joaten ziren. Maristak ziren

**5. Maisuak maristak ziren**

- **Erref:** BRA-014/008
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:08:01. **Bukatu:** 00:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Maisuak maristak ziren. Ez zuten deus kobratzen eta etxetik jakiak (arrautzak, patatak, ilarrak etab.) eramaten zizkieten ordaintzeko. "Ez zuten goserik pasatzen".

**6. Eskola erdaraz**

- **Erref:** BRA-014/010
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Eskola erdaraz ematen zuten. Gipuzkoako Atanasio aitak, berriz, beti euskaraz egiten zien. Auzoko lagun batek Ameriketara joan nahi zuen, baina ez zekien gaztelaniaz idazten. Gutuna idatzi zion eta hiru hilabeteren buruan joan zen hara.

**7. Hamar urte Ameriketara**

- **Erref:** BRA-014/011
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Lagun batekin izan zen Ameriketara. Bera hamar urteren buruan etorri eta hemen gelditu zen. Bere laguna, berriz, 22 urte pasa zituen han.

## 8. Nola joan zen Ameriketara

- **Erref:** BRA-014/012
- **Iraupena:** 0:07:01. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Anaia etxerako gelditzekoa zenez, kanpora ateratzea pentsatu zuen. Lehenbiziko Frantziara joatea pentsatu zuen, baina aitaren lehengusua Ameriketara zegoen eta erreklamatu zuen bera. Iruñean gestoria bat zegoen paperak egiteko eta Bilboko kontsulatua azterketa egin behar zuten. Azterketa gainditzeko bazuten bisa ematen zieten. Bakarrik egiten zuten lan eta bazkaria ere berak egiten zuten. Karro bat eman zioten. Lehenbiziko Kaliforniara joan zen, han lau urte izan zen, baina udan bero ikaragarria egiten zuten (semitropikoa da) eta ez zuten aguantatzen. Gero, Iparraldera joan zen (bi egun eta gau bateko distantzia Kaliforniatik). Han bi lagun egon behar zuten. Urteko hilabete guztietan elurra egiten zuten. Hamar gradu zero azpitik izaten zen; hotz idorra zen.

## 9. Ameriketara joateko abioia

- **Erref:** BRA-014/014
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Helizeak zituen abioi batean joan zen Ameriketara, 1953an. 35 orduko bidaia izan zen.

## 10. Ameriketara artzain 1. Ardiak, zaldiak eta zakurrak

- **Erref:** BRA-014/016
- **Iraupena:** 0:06:34. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:35:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Aste guztian egiten zuten lan (baita larunbat eta igandetan). Urtean hilabete bat libre zuten, baina oporrik hartzen ez bazuten, bikoitza ordaintzen ziren nagusiak. Mendian 2500 eta 2700 arteko buru izaten zituzten udan; neguan, berriz, guttiago. Bi lagun izaten ziren: bata artzain eta bestea sukaldari. Noizbait galdu izan zen mendian; baina ez zen deus pasatzen, zaldia eskutikan uzten ez bazenuen, zaldia ez baita galtzen. Etxera itzultzeko, zaldiaren gainean jarri eta utzi behar zaio libre, berak bidea baitaki. Zaldia eta zakurra azkarrak dira. Lau zaldi izaten zituzten bi lagunentzat: bi ongi heziak, bat goizean erabiltzeko eta bestea arratsaldean; beste biak, berriz, leku aldaketetarako erabiltzen ziren. Izan ere, lekuz aldatu behar zuten, hainbeste ardiek segituan jaten baitzuten mendia. Jeneralean hiru hilabete izaten ziren mendi batean eta, zu han zauden bitartean, ezin da inor sartu. Walkie-talkieak erabiltzen zituzten beste artzainekin komunikatzeko. Artzainak udaberrian elkartzen ziren noizbehinka.

## 11. Ameriketako artzain 2. Ogia

- **Erref:** BRA-014/017
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:35:44. **Bukatu:** 00:39:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Artzainak udaberriaren hasten zireneko noizbehinka juntatzen. Behin mejikano bat hurbildu zitzaie. Mejikanoek ez dute ogirik egiten, "tortillak" egiten dituzte. Beraiek ogia lurpean egiten zuten (nola egiten zuten azaltzen du). Mejikanoa beraiekin bazkaldu zuen eta erotua zegoen ogiarekin (errezeta hartu zuen).

## 12. Ameriketako artzain 3. Maiordomoak

- **Erref:** BRA-014/019
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:39:19. **Bukatu:** 00:42:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Maiordomoa izaten zen. Tximista batek jo zuen eta hil egin zen. Norbait largabistekin begiratu eta ohartu zen bere artaldea abandonaturik zegoela eta haren nagusiari erran zion. Maiordomo hori bakarrik egoten zen, eta hori ez zen libre (bi lagun izan behar zirenen beti). Maiordomoaren lana artzainei janak eramatea eta eskaerak jasotzea zen.

## 13. Ameriketako artzain 4. Nagusiak. Negua eta uda

- **Erref:** BRA-014/020
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:42:59. **Bukatu:** 00:44:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Nagusi batek 2.000 behi eta 20.000 ardi zituen. Neguan artzain guttiago zituen bere kargu, artaldea ttikitzen zelako (bildotsak trenez eramaten zituzten bizirik). Neguan basamortura joaten ziren; oso gogorra zen.

## 14. Ameriketako artzain 5. Hartzak, koioteak, pumak eta katamotzak

- **Erref:** BRA-014/021
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:44:43. **Bukatu:** 00:49:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Aurkakoen falta ez zuten ez desertuan neguan ezta mendian udan: bertzeak bertze, hartzak, koioteak, lehoiak (pumak) eta lintzeak (katamotzak) izaten ziren. Tiro egin behar zieten. Nagusiak arma bat emateko obligazioa zuen. Berak hartza eta lintzea hil zituen; koioterik eta lehoirik (pumarik), berriz, ez zuen hil (asko ikusi bazituen ere). Pumak eta koioteak ardi anitz hiltzen dituzte artalde batean sartzen direnean; hartzak eta lintzeak, berriz, bakarra hiltzen

ohi dute. Izan ere, hartzak, harrapatzen duena jan arte, ez du besterik hiltzen. Lintzeak (katamotzak) muturretik harrapatzen du ardia.

## **15. Ameriketako artzain 6. Hartzak hiltzeagatik, 20 dolar**

- **Erref:** BRA-014/023
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:50:04. **Bukatu:** 00:52:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### **Gaia(k):**

#### **Laburpena:**

Lehoiak eta hartzak jendearengandik eta zakurrengandik ihesi joaten dira. Amerikanoek hartzak jaten dute, gaztea baldin bada. Artzainek, hartz bat hiltzen zutenean, belarria kendu eta nagusiari ematen zioten; honek, 20 dolar ematen zizkien. Koiote eta bertzeengatik ere dirua ematen zieten.

## **16. Ameriketako artzain 7. Tranpa-jartzaileak**

- **Erref:** BRA-014/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:52:11. **Bukatu:** 00:53:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### **Gaia(k):**

#### **Laburpena:**

Basamortuan, neguan, koiote anitz izaten ziren eta Gobernuak tranperoak (tranpa-jartzaileak) eramaten zituen. Hegazkin txikiekin ere joaten ziren eta handik tiroka aritzen ziren, batidak (uxaldiak) ematen. Tranperuek pozoia paratzen zuten eta zakurrak hil zitzaizkion berari.

## **17. Ameriketako artzain 8. Ardi anitz hil. Ardiak kontatu**

- **Erref:** BRA-014/025
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:53:51. **Bukatu:** 00:57:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### **Gaia(k):**

#### **Laburpena:**

Ardi anitz hiltzen zizkieten koioteek-eta. Mendira joan aurretik ardiak kontatzen zizkieten artzainei eta, gero, udazkenean, itzultzen zirenean, berriz ere. 100 burutik 7 galtzen baziren (edo 100 buru baino gutxiago), garaipena zen. Mendian zela ere kontatzen ohi zituzten ardiak: denak biltzen zituzten eta, arbasatik pasatzean, maiordomoak kontatzen zituen. Ardi guztien artean, ehun bat ardi beltz izaten zituzten; hoiek kontatzen zituzten noiznahi eta, baten bat falta bazen, ardi gehiago falta zirela erran nahi zuen.

## **18. Ameriketako artzain 9. Egunero leku berrira**

- **Erref:** BRA-014/027
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### **Gaia(k):**

**Laburpena:**

Egunero leku berrira mugitzen zen, bazka berria emateko ardiei. Ardi batzuk falta zirela ikusten zuenean, aurretik pasatutako lekuetara joaten zen, ur ondoan edota itzaletan izaten baitziren ardiak.

**19. Ameriketan artzain 10. Kapoiak**

- **Erref:** BRA-014/029
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:59:58. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Hango ardia beti kurri: udan mendira eta udazkenean basamortura. Kapoi espresak zituzten ardiek segitzeko.

**20. Ameriketan artzain 11. Zer jaten zuten**

- **Erref:** BRA-015/001
- **Iraupena:** 0:06:16. **Hasi:** 00:00:01. **Bukatu:** 00:06:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Bizimodu gogorra zen hangoa, baina egun onak ere izaten zituzten. Jatekorik ez zen falta. Amuarrain anitz arrantzatzen zituzten errekan. Denetarik jaten zuten: bertzeak bertze bildotsa, arraina, mendiko oiloa, untxia (neguan, desertuan). Ehiza nahi duzun guztia duzu han. Ez ziren zakurrarekin joaten ehizara. Erbi anitz ere baziren basamortuan, baina karroñoeroak (sarraskijaleak) dira eta ez zituzten jaten.

**21. Ameriketan artzain 12. Markatu, buztana moztu eta barrabilak kendu**

- **Erref:** BRA-015/003
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:06:33. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Ardiak korraletara biltzen zituzten eta, ate batetik pasatzean, tintaz markatzen zituzten. Bildotsei buztana mozteko, laguntzailea joaten zen. Bildotsei ahoarekin kentzen zizkieten barrabilak. Sukaldean prestatu ondoren, hagitx onak omen ziren jateko.

**22. Ameriketan artzain 13. Karabanak eta kanpadendak 1**

- **Erref:** BRA-015/005
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:10:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Neguan (desertuan) karabanan egiten zuten lo eta udan (mendian), berriz, kanpadendan. Karabana zaldiek tiratzen zuten

**23. Ameriketako artzain 14. Karabanak eta kanpadendak 2**

- **Erref:** BRA-015/007
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Kanpadendan lo egiteko petatea (zakua) zuten. Estufa (labe) txiki bat ere izaten zuten bazkaria prestatzeko; hodi baten bitartez ateratzen zuten kea, tximini moduan. Karabana edo roulottea barrutik nolakoa zen azaltzen du. Neguan, karabanan gordetzen zituzten patatak eta arrautzak hormatu eta lehertzen ziren. Ura edaten zuten; Kalifornian, berriz, ardoa izaten zuten; berak, udan, meloia nahiago zuen freskatzeko. Kalifornian, karabana gehienetan hozkailu txiki bat izaten zuten. Han, baina, bakarka egoten ziren.

**24. Ameriketako artzain 15. Garbitasunak**

- **Erref:** BRA-015/009
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Udan, ubidetan bainatzen ziren. Arropa garbitzeko, taula bat, lixiba eta eskuila erabiltzen zituzten. Kalifornian ordu erdian idortzen zen arropa.

**25. Ameriketatik itzuli zenean**

- **Erref:** BRA-015/010
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:19:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Bera Ameriketara joan zenean, dolarrak 15 pezeta balio zuen. Gero, egunetik egunera goiti joan zen. Bera hemengo fabrikara lanera joan zenean, 12 pezeta irabazten zituen. Hona etorri zenean, aldaketa handia nabaritu zuen; mila pezetako billeteak zituzten orduko gazteek. Fabrika anitz sortu ziren orduan hemen.

**26. Baserriko bizitza**

- **Erref:** BRA-015/012
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:22:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Ameriketara joan aitzineko bizitzari buruz mintzatzen da. Baserrian lan egiten zuten jan alde, sosik gabe beti. Etxean landatu, erein, esnea jetzi... Jeneralean artoa zuten, errotara eraman eta irinarekin taloak egiten zituzten. Amak erakutsi zion taloak egiten (ur epela behar zuten, adibidez). Ama eta aita igande goizetan, 6etan, lehen mezara joaten ziren eta opilak egiteko erraten zioten berari. Behin, esnearekin egin zituen.

**27. Herrietan gosea**

- **Erref:** BRA-015/013
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:22:33. **Bukatu:** 00:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Herrian, deus ere ez zutenek gosea pasatzen zuten. Gauez, inguruko baserrietako baratzeetan ahal zutena ebasten zuten; besteak beste, patata koxkorra kentzen zuten, landarea utzita. Ez zen azukrerik, ezta oliorik, ezta arrozik ere.

**28. Errazionamendua. Gaueko lana**

- **Erref:** BRA-015/014
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Hilabetean behin errazionamendu txartelarekin erosten zituzten jakiak. Baina oso gutxi ematen zieten; behin, komediantek batzuk joan ziren herrira eta txantxetan aritu ziren hori zela eta. Batzuek gaueko lana (kontrabandoa) egiten zuten, sosen bat ateratzeko. Dena dela, han ez zen inor aberastu kontrabandoarekin. Gazte askok igandean gastatzen zuten lortutako sosa. Beste batzuek etxean entregatzen zuten sosa. Fabrikan errazionamendu hobia ematen zieten langileei.

**29. Hamaika urterekin kontrabandoan**

- **Erref:** BRA-015/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:26:58. **Bukatu:** 00:28:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Hamaika urterekin hasi zen kontrabandoan, aitak bidalita. Tela ekarri zuen. Anaiarekin joan zen, egunez, gauez ibiltzeko oraindik gazte baitziren. Militarrez josia zegoen dena. Aitak etxetik kanpo gordetzen zituen paketeak.

**30. Anekdotak. Dirua gorde**

- **Erref:** BRA-015/016
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:32:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Hamabi urtera arte eskolara joan zen. Oporren ostean, egun erdiko eskola izaten zuten soilik, hamabost egunez. Ordu bateko bidea zuten eskolatik baserrira. Ama astean behin dendara (Mariarenera) joaten zen. Amak bi sos ematen zizkion dendan berendua (askaria) erosteko (olata txiki eta txokolate pastilla). Baina berak gosea aguantatu eta dirua gorde zuen. Bere ama dendara joan zenean enteratu zen eta zertan gastatzen zuen galdetu zion (gozokietan gastatzen zuela uste baitzuen). Erakutsi zionean, amak hartu zion berriz dirua.

**31. Gazte denborako gaixtakeri txikiak**

- **Erref:** BRA-015/017
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:32:14. **Bukatu:** 00:33:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Baserrian fruta anitz bazuten ere, bera ondoko baserrietatik hartzen zuen.

**32. Noiz egin txertaketak**

- **Erref:** BRA-015/019
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:35:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Otsaileko ilbeheran egin behar dira txertaketa gehienak. Martxoko ilbeheran ere, izerdia mugitzen hasten da eta ongi hartzen dute arbolek txertaketa.

**33. Txertaketak nola egin**

- **Erref:** BRA-015/020
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:35:07. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Txertaketak nola egiten dituen azaltzen du.

**34. Ordu zaharra**

- **Erref:** BRA-015/021
- **Iraupena:** 0:05:26. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:44:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Eguzkiko ordua zen lehen, orain bi ordu aurreratu da. Sakeleko erlojuak izaten ziren (bere etxean bat zegoen) eta penduluko erlojuren bat ere izaten zuen norbaitek. Herrira joaten zirenean, elizako erlojua begiratzen zuten. Etxean

iratzargailu bat izan zuten. Bere aitak urrezko erloju bat aurkitu zuten mendian; Madrilgo etxe batean lanean ari zen izeba batek oso garestia zela erran zien. Lehengo zaharrek itzalari begiratuta jakiten zuten zer ordu zen.

### 35. Sorginak eta lamiak 1

- **Erref:** BRA-015/023
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:44:05. **Bukatu:** 00:48:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

#### **Laburpena:**

Gurasoek lamietan ez zela sinetsi behar erraten zieten. Bere osabari gertatutakoa kontatzen du: zerrategitik zetorrela, sorgina atera zitzaion (galdategi fabrika zegoen tokian), aurre egin zion eta, alde egin zuenean, ezagutu zuen nor zen. Neskek ilunerako etxera itzuli behar zuten; berandu iristen ziren neska batzuei gurasoak atera zitzaizkien sorginak izanen balira bezala ikaratzeko. Lamiak eta sorginak gauza bera dira. Zugarramurdin zuten zentroa.

### 36. Sorginak eta lamiak 2

- **Erref:** BRA-015/025
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:49:21. **Bukatu:** 00:50:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

#### **Laburpena:**

Lehen, apaizak lamiak omen ziren Zugarramurdin. Anitz formatan ateratzen ziren, ez ezagutzeko. Apoak jaten omen zituzten. Besta egunak izaten zituzten.

### 37. Frantsesa eta igarlearen istorioa

- **Erref:** BRA-015/027
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:52:39. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

#### **Laburpena:**

Frantses bat adibinadora (igarle) batengana joan zen. Bi urte barru uros (zoriontsu) izanen zela erran zion. Bi urteren buruan, baina, hil zen.

### 38. Mexikarrak superstiziosoak dira

- **Erref:** BRA-015/028
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

#### **Laburpena:**

Mexikarrak oso superstiziosoak dira.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com